



EH BILDU-ELKARREKIN DONOSTIA (Podemos / Ezker Antiza-IU / Equo Berdeak)

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

URGULLEKO GUARDAETXEKO LANEN EGOERARI BURUZ

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, eta Aitzole Araneta Zinkunegik, Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaleak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dugu, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14an Pertsonentzako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2009 eta 2019 urteen artean Banda Bat elkarteak eraman du, Donostiako udaletxearen kontzesioz, Urgulleko Guardaetxearen kudeaketa. Hamar urteko epean, espazio hau hiriko kultur gune garrantzitsua bilakatu da, era askotako aisialdi eta kultur eskaintzarekin.

Bertako eragile eta artistentzako gune ireki bat eskaini eta kultur eskaintza eraldatzaile bat proposatzeko asmoz ekin zion Banda Bat taldeak Guardaetxearen kudeaketari. Geroztik, ekitaldi propioak antolatu eta gainerako eragileen jarduerak koordinatzeaz arduratu dira, emaitza nabarmenarekin. Urtero, adin guztietarako hamarnaka ekitaldi jaso dituzte Urgulleko eraikinean, kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak eta bestelako hainbat egitasmo nahasiz.

2019ko uztailaren 30ean, aldiz, taldearen jarduna eten egin zen, egun horretan Guardaetxea behin-behinean itxi baitzuen udalak, eraikinean hainbat konponketa egin eta kudeaketarako lehiaketa publikoa aurkezteko. Prozesu hau modu ulergaitzean luzatzen ari da, elkarteko kideek salatzen duten bezala. Hori dela eta, 2020ko irailean interpelazioa aurkeztu genuen Elkarekin Donostia eta EH Bilduko udal taldeek. Zinegotzi ordezkariak batzordean adierazi zenez, eraikineko lanak Mantenu sailak egin behar ditu, eta COVID-19 birusak eragindako osasun krisiaren ondorioz atzerapenak izan diren arren, lanak noiz hasiko diren aztertzen hasiak dira, nahiz eta oraindik datarik ez dagoen. Aldi berean, behin lanak amaituta, eraikinaren kudeaketari begira “hasiera batean behintzat aldatzeko asmorik ez” dagoela gehitu zuen.



EH BILDU-ELKARREKIN DONOSTIA (Podemos / Ezker Antiza-IU / Equo Berdeak)

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen dugun zinegotziok aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azkartu eta bideratu ditzala beharrezko prozedurak, 2020ko azarorako Guardaetxean egin beharreko lanak abiatu daitezten.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin lanak amaituta, eraikinaren kudeaketarako lizitazioa orain arteko jarduera baldintza berdinetan egin dadila.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kontuan hartuta eraikina urte betez erabilerarik izan ez duela, lanak amaitu eta sei hilabeteko epean espazioa nolabait erabiltzeko aukerak eskaini ditzala.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Aitzole Araneta Zinkunegi
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea